ZINEBI 68

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia
Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao
International Festival of Documentary and Short Film of Bilbao

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

Bilbao

ZINEBI EXPRESS

#zinebi68 // IG: @zinebifilmfest // www.zinebi.eus

AZA. 5 – 9. 2026

Hauen laguntzaz

ehukultura

fundación sgae fundazioa

Erakunde laguntzaileak

EHU

EC PV

Tartanga

IDOM

ZINEBI EXPRESS

ZINEBI 68
AZA. 5 — 9. 2026

OINARRIAK

ZINEBI Expressen 18. edizioa 2026ko azaroaren 5etik 9ra izango da. Lehiaketa ZINEBIk, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak, antolatzen du, EHUkulturaren lankidetzarekin eta honako hauen parte hartzearekin: Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Arte Ederren Fakultatea, Euskal Herriko Zinema Eskola eta Tartanga Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua.

Deialdia zabalik dago parte hartu nahi duten beste erakunde eta ikastetxeentzat, baita ikastetxe edo prestakuntza ikastegiekin loturarik ez duten taldeentzat ere.

ZINEBI Expressek EHUren eta SGAE Fundazioaren babesa eta IDOMen laguntza ditu.

GazteDokurekin batera, ZINEBI Express Pórtico ZINEBI Atariaren parte da, zeina prestakuntza akademikoaren, sortu berri den ikus-entzunezko sorkuntzaren eta jarduera profesional zinematografikoaren arteko trantsizioari laguntzeko pentsatutako espazio bat baita.

1. Parte hartzea

Lehiaketa edozein nazionalitateko pertsonek osatutako taldeentzat dago zabalik, ikastetxe edo prestakuntza ikastegiekin lotura izan ala ez.

Talde bakoitzak film labur bakarra aurkeztu ahal izango du.

2. Aurkeztea eta izena ematea

ZINEBI Express aurkezteko ekitaldia 2026ko azaroaren 5ean izango da, ostegunean, 12:00etatik 13:00etara, TUMO Bilbao-Bizkaia Sormen Teknologien Zentroan (Arriquíbar plaza 4, Bilbo).

Ekitaldian zehar emango da lehiaketaren gaiaren berri. Izen-emateak lekuan bertan egingo dira, presentzialki, gaia iragarri ondoren.

3. Film laburrek bete beharreko baldintzak

Aurkezten diren lanek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Genero askea.
- Hiru minutuko iraupena gehienez, kreditu-tituluak barne hartuta.
- Entregatzeko formatua: H.264 kodeka, progresiboa, 16:9 formatu ratioa eta 25 fps.
- Nahitaez sartu behar da, gutxienez, kanpoaldean filmatutako eszena bat, animazio lanetan izan ezik.

4. Lanak entregatzea

Entregatzeko epea 2026ko azaroaren 9an amaituko da, 12:00etan.

Film laburrak digitalki entregatu behar dira, deskargatzeko esteka honako helbidera bidalita: cristina@zinebi.eus.

5. Epaimahaia eta hautaketa

Film laburrak ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalez osatutako epaimahai independente batek ebaluatuko ditu, eta ZINEBIko zuzendaritza arduratuko da epaimahaikideak izendatzeaz.

Epaimahaiak erabakiko du zein lan saritu eta, gainera, beste film labur aipagarri batzuk ere aukeratu ahal izango ditu sariak banatzeko ekitaldian proiektatzeko.

Osorik ahozko euskaraz dauden eta sailkapen onena duten lehen bi filmak automatikoki hautatuko dira 2026ko abenduaren 8an Durangoko Azokako DemaSA Lehiaketan, Irudiena Sailean, proiektatzeko.

6. Sariak

- Lehen saria: 800 euro eta ZINEBI 68rako akreditazioak.
- Bigarren saria: 600 euro eta ZINEBI 68rako akreditazioak.
- Hirugarren saria: 400 euro eta ZINEBI 68rako akreditazioak.

Akreditazioei esker, saritutako taldeetako kide guztiak ZINEBI 68ko saio eta jarduera profesionaletara joan ahal izango dira, aurrez aurreko topaketetara izan ezik.

7. Adingabeen parte hartzea

Adingabeek euren legezko tutorearen baimena aurkeztu eta izena emateko unean entregatu behar dute.

8. Egile eta irudi eskubideak

- Film laburrek originalak eta jaialdi edo plataforma komertzialetan argitaragabeak izan behar dute.
- Erabilitako musikak eskubiderik gabekoa izan behar du edo lizentzia eduki behar da (adib. musiclibrary. es).
- Taldeek obran agertzen diren pertsona, marka edo leku guztien baimena izan behar dute.
- Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egile eskubideen edo datuen babesaren arloan gerta daitezkeen arau-hausteen gaineko erantzukizunik.

9. Film laburrak erabiltzea eta proiektatzea

- Antolatzaileek beretzat gordetzen dute parte hartzen duten film laburrak ZINEBI Expressen jardueretan zein ZINEBIren hurrengo edizioetan proiektatzeko eskubidea.
- Ez da onartuko eduki desegokia, gorroto hizkuntza edo hizkuntza diskriminatzailea duen lanik.
- Filmaketa eta edizio gastuak, zein produkziotik eratorritako beste edozein gastu parte hartzen duten taldeen kontura izango dira.
- Saritutako film laburren egileek antolatzaileei lagatzen dizkiete egindako film laburrak jendaurrean erreproduzitzeko eta komunikatzeko eskubideak, lehiaketa sustatzeko.

10. Oinarriak onartzea

ZINEBI Expressen parte hartzeak berekin Dakar oinarriak osorik onartzea, baita Arriaga Antzokiak bere webgunean argitaratuta duen pribatutasun politika onartzea ere.

11. Sari banaketa eta proiekzioa

Sari banaketa eta hautatutako film laburren proiekzioa 2026ko azaroaren 23an izango dira, astelehenean, goizez, Bizkaia Aretoko Mitxelena aretoan (Abandoibarra etorbidea 3, Bilbo).

Saio berean, GazteDokun parte hartzen duten taldeek euren proiektuak aurkeztuko dituzte bertaratutako publikoaren aurrean.

EGITARAUA

Azaroaren 5a, osteguna
TUMO Bilbao-Bizkaia

Ugaitz Alegriak aurkeztuta

12:00

Ongietorria eta ZINEBI Expressen aurkezpena.

12:10

«Zaintzen gaituen zinema»
Topaketa Lara Izagirre zuzendari, gidoilari eta produktorearekin.
Hitzaldia euskara hutsean izango da.

12:30

ZINEBI EXPRESSen gaiaren aurkezpena.
Joseba Lopezortega ZINEBI – Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiko zuzendaria

12:30–13:00

Parte hartzen duten taldeen izen-ematea.

Azaroaren 9a, astelehena

12:00

Film laburrak jasotzeko epearen amaiera.

Azaroaren 23a, astelehena
Mitxelena aretoa, Bizkaia Aretoa – EHU

Ugaitz Alegriak aurkeztuta
Ordutegia baieztatzeke

- GazteDokun parte hartzen duten proiektuen jendaurreko aurkezpena.
- ZINEBI Expressen hautatutako film laburren proiekzioa.

ZINEBI Express sarien banaketa.

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Edificio La Perrera, 1go solairua. Sabino Arana, 50 - 48013 Bilbao
+34 944 248 698 / info@zinebi.eus / www.zinebi.eus

@zinebifestival @ZinebiFest @zinebifilmfest

Hauen laguntzaz

ehukultura fundación sgae fundazioa EHU ARTE EDERREN FAKULTATEA FACULTAD DE BELLAS ARTES EC PV

Erakunde laguntzaileak

Tartanga TUMO BILBAO-BIZKAIA IDOM